# MANTENIMIENTO Y MONTAJES DE PLAYAS DE BIZKAIA



# LA PLANTILLA DE MANTENIMIENTO DE LAS PLAYAS DE BIZKAIA, EN HUELGA

Somos los trabajadores encargados del montaje y mantenimiento de playas de Bizkaia. Somos una plantilla de siete trabajadores encargados de que las playas estén en condiciones de uso el día de la apertura al baño de los arenales de toda Bizkaia y durante toda la temporada de baño.

Nuestro convenio de referencia es el Convenio colectivo del sector de saneamiento público, limpieza viaria, riegos, recogida, tratamiento y eliminación de residuos, limpieza y conservación de alcantarillado estatal, convenio que por no tener, no tiene ni tablas salariales ni jornada de referencia.

Llevamos meses negociando con la empresa mejoras de nuestras condiciones laborales pero tras varias reuniones y buenas palabras por parte de la empresa, finalmente los contenidos que la empresa nos ofrece están lejos de nuestras reivindicaciones.

Este 29 de mayo comenzamos una huelga indefinida con el objetivo de conseguir un Convenio que mejore nuestras condiciones laborales.

Nuestra reivindicación es conseguir un Convenio de empresa en el que se recojan las siguientes condiciones:

- Salario mensual de 1300€ en 15 pagas para las categorías más bajas (peón)
- Plus nocturnidad, plus tóxico, penoso y peligroso, plus asistencia y plus transporte.
- Que las pagas extras incluyan los siguientes pluses anteriormente citados.
- Actualizaciones anuales del IPC
- Jornada de 36 horas semanales.
- Clausula de ultractividad indefinida
- Garantía de no descuelgue por parte de la empresa.
- 30 días naturales de vacaciones.
- Antigüedad en trienios al 3% durante 4 años y quinquenios del 6% para el resto de años.
- Complemento de las bajas tanto por accidente laboral como por enfermedad común.
- Consideración del tiempo de bocadillo como tiempo de trabajo efectivo

Por todo ello esperamos que las usuarias y usuarios de las playas de Bizkaia comprendan la situación y se solidaricen con nuestas reivindicaciones.

## TRABAJADORXS DE PLAYAS EN LUCHA! **POR UN CONVENIO JUSTO!**

Aktibatu Lortu Zaindu

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# BIZKAIKO HONDARTZETAKO MUNTAI ETA MANTENIMENDUA



# BIZKAIKO HONDARTZETAKO MANTENTZE-LANETAKO LANGILEAK, GREBAN

SoBizkaiko hondartzak muntatzeaz eta mantentzeaz arduratzen diren langileak gara. Zazpi langileko plantilla bat gara, Bizkaia osoko hareatzetako bainurako irekiera egunean eta bainu-denboraldi osoan hondartzak erabiltzeko moduan egoteaz arduratzen dena.

Gure erreferentziazko hitzarmena honako Estatu mailako hitzarmen kolektiboa da: saneamendu publikoa, bide-garbiketa, ureztatzeak, hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena, estolderia garbitzea eta kontserbatzea. Hitzarmen horrek ez du soldata-taularik, ezta erreferentzia-lanaldirik ere.

Hilabeteak daramatzagu enpresarekin gure lan-baldintzak hobetzeko negoziatzen, baina  hainbat bilera egin ondoren eta hitz on asko entzun ondoren, egiten dizkigun eskaintzen edukiak gure aldarrikapenetatik urrun daude.

Maiatzaren 29an greba mugagabea hasi dugu, gure lan-baldintzak hobetuko dituen hitzarmena lortzeko.

Gure aldarrikapena enpresa-hitzarmen bat lortzea da, honako baldintza hauek jasoko dituena:

- 1300 €-ko hileko soldata 15 ordainsaritan kategoria baxuenetarako (peoia)
- Gaueko lanaren plusa, plus toxiko, nekagarri eta arriskutsua, laneratze-plusa eta garraio-plusa.
- Aparteko ordainsariek lehen aipatutako plus hauek barne hartzea.
- KPIaren urteko eguneratzeak
- 36 orduko lanaldia astean.
- Ultraaktibitate mugagabeko klausula
- Enpresak hitzarmena aplikatzeko bermea.
- 30 egun naturaleko oporrak.
- Antzinatasuna hirurtekoetan, % 3an 4 urtez, eta % 6ko bosturtekoak gainerako urteetan.
- Lan-istripuagatiko eta gaixotasun arruntagatiko bajen osagarria.
- Ogitartekorako denbora benetako lan-denboratzat hartzea

Horregatik guztiagatik, espero dugu Bizkaiko hondartzetako erabiltzaileek egoera ulertzea eta gure aldarrikapenik elkartasuna adieraztea.

HONDARTZETAKO LANGILEAK  BORROKAN! **HITZARMEN DUIN BATEN ALDE!**